


Berbarotarra



atara eizu
talentue
plazara!



TALENTUAK PLAZARA!

"Atara eizu talentue plazara" esaldiarekin bueltaka ibili gara azken aldian; karteekin eta bideo berezi batzuekin ere. Inguruko artistak piztu nahi ditugu kanpaina honekin eta ezkutuko talentua dutenek plazara ateratzea. Eskaintzeko duzuen, seguraski, pentsatzen duzuen baina gehiago da eta hori aprobetxatzea nahi dugu, 2-10 urte bitarteko umeentzako ikuskizunak eskaintzeko. Adin horretarako zerbait prestatzeko aukera baduzu, animatu eta eman izena "Talentuak Plazara" ekimenean, uztailaren 12ra arte duzue epea eta. Baina lasai, ez duzue dena montatuta izan behar ordurako! Egun horretara arte izena eman eta gero irailera arte izango duzue dena prestatu eta ikuskizun ikaragarria erakusteko. Edozein disziplina da baliagarria: antzerkia, musika, ipuinak, magia, dantzak... Ekimenean parte hartzeko oinarri batzuk jarri ditugu, guztiontzako pareko baldintzak jartzeko eta horiek gure webgunean aurkituko dituzue. Eta irailetik aurrera egingo dugun aukeraketa prozesuaren ondoren, 6 ikuskizunek aukera izango dute Plateruenan prestatutakoa aurkezteko eta gainera, sariak irabazteko. Denok dugu barruan artista bat eta ateratzeko ordua heldu da! Animatu eta parte hartu!!

ZERGATIK EZ! tailerra

Durangaldeako ia ikastetxe gehienetan eman dugu tailer hau, 16 urteko gazteei. Hala ere, edozein adinetako pertsonekin lantzeko modukoa da, baldintza bakarra euskaraz jakitea da; hain zuzen, euskara gehiago erabiltzea baita tailerraren helburua, zelan?:

- 1 Euskararen erabilera sozialaren inguruko hausnarketa gune bat sortzen.
- 2 Guk, hiztun gisa, uneoro aukeratzten ditugun hizkuntza jarrerek duten eraginaz hausnartzen.
- 3 Euskararekiko jarrera baikorrak sustatzen.
- 4 Euskararen errealitatearen eta etorkizunaren ikuspegi baikor bat azaleraztzen.



The poster features the title 'zergatik ez?' in a stylized font with a colorful flower icon above the 'i' in 'zergatik'. Below the title, it reads 'EUSKARAREN ERABILERA SOZIALA BULTZATZEKO TAILERRA'. The central image shows silhouettes of people dancing or celebrating against a bright sunset. At the bottom left is the logo for 'tallers per la llengua' and at the bottom right is the logo for 'topagunea'.

Era guztietako taldeak izan ditugu, eta talde bakoitzean era guztietako pertsonak; oso euskaltzaleak, gaian interes handirik ez dutenak, euskararen kontra dagoen baten bat... Hala ere, talde guztietan lortu dugu "konektatzea" eta hainbat eztabaida bideratzea. Talde guztietan ikusi dugu 5,6,7 laguneko talde txoa euskaraz egiteko gogoia indarberrituta!

Tailerrekin amaitzeko balorazio fitxa bat betearazi diegu hartzaileei eta GUZTI-GUZTIEK, 1etik 5erako tartean, 4tik gorako nota jarri diote bai tailerrari eta bai hizlariari.

Gure ustez, zenbait irakaslerekin egon ostean, oso garrantzitsua da tailerrak jarraipena izatea. Hau da, tailerrarekin ematen dugun informazioa zenbat eta pertsona gehiagok izan, aukera gehiago egongo da euskaraz egin nahi dutenen sarea sortzeko.

Adibidez, kriston konexioa lortu genuen Durangoko F.J. Zumarraga institutuko gela oso erdaldun batekin; oso eztabaida interesgarriak sortu ziren beraien artean, esate baterako, erdaldunak izateagatik batzuetan diskriminatuak sentitzen zirela komentatzen zuten, euskara batua ikasi dutela eta euskalkiak ikastea gustatuko litzaiekela erosoago erabili ahal izateko eta abar. Beste muturrean, Durangoko Kurutzaga ikastolako talde bat dago, euskara taldeko hainbat kide zituena. Talde horretako eztabaidak beste maila batekoak ziren, datuak batzen hasi ziren euskararen aldeko kanpainak abian jartzeko!

Hamaika ideia bururatzen zaizkigu, batzuk zentzuzkoak, zentzubakoak asko eta zentzuzkoegiak apur batzuk. Ideia bat ahotik ateratzen zaigun bakoitzean egingarria edo egingaitza den erabakitzen saiatzen gara, eta egingaitzarena egin ostean konturatzen gara hura ere posible zela. Egin zitekeen edo ez ahaztu eta egiteari ekin diozuelako heldu gara honaino. Urteetako trabei aurre egiten jakin duzuelako 2013. urteraino ailegatu gara: izan ere, konturatu orduko, 25 urte beteko ditu Berbarok datorren urtean zuotako bakoitzaren lanari eta ilusioari esker. Euskaraz bizitzea posible zela eta euskaraz bizi nahi genuela erabaki zuen norbaitek noizbait eta egingaitza zirudien hura eraikitzen igaro ditugu urte batzuk. Plazer handia izango da niretzat denon artean eraikitakoa eraikitzen jarraitzea.



Udal barruko euskara erabilera plana


Zer ari gara lantzen udaleko langileekin? Hori da zuetako askok jakin nahiko zenuketena. Gehiegi ez luzatzeko baina ideiarene bat izateko pare bat adibide azalduko dizkizuegu.

Martxan dugu dinamika berri bat udaleko sail zehatz batean, hain zuzen, langileen arteko ahozko erabilera hizkuntza ohiturak aldatzeko. Batez ere erabilera informalean izan du eragina baina laneko kontuetan ere hasi dira ohiturak aldatzen. Sail horretan 12 langile daude eta euren arteko euskararen erabilera %29tik %70era igo da bi hilabetetan. Zehaztasun gehiago euskara zerbitzuko blogean:

<http://damintzagu.blogariak.net/2013/05/10/zer-ari-da-gertatzen-udaletzeko-3-solairuan/>

Beste adibide bat:

Udaleko langileek hainbat dokumentu eta txosten sortzen dituzte, orain arte gehientsuenak gazteleraz sortzen ziren eta gero, gehienak, euskarara itzuli elebidun egoteko. Bada, 2013an langile guztiek hartu dute konpromisoa txosten horietako batzuk euskaraz sortzeko, eta gero gaztelerara itzuliko ditugu, baina euskaraz sortu. Esaterako, batzordeetan lantzen diren txostenak, bandoak, Bizkai-ko Aldizkari Ofizialean agertzen diren iragarkiak eta abar. Hala ere, langile askoren produkzioa herritarren eskariaren arabera da. Hau da, herritarrek euskara aukeratzen badute harremanetarako hizkuntza gisa, erantzunak euskara hutsez emango zaizkie, ahoz zein idatziz. Besteak beste, bulego tekniko arkitektoak eta teknikari batek argitu diguten bezala, prest dade euskaraz lan egiteko eta herritarrek animatu dituzte, adibidez, obretako baime-
nak euskaraz eskatzeko.



Udaleko bulego tekniko langileak

Kaixo, lagunok!

Kaixo, lagunok! Ikasturte osoan zehar hainbeste kostata prestatutako udalekuak berriro ere martxan jarriko ditugu eta, urtero bezala, bertan izango naiz zuekin batera ondo pasatzeko.

Aurten, gainera, etengabe Trumoi izan dugu bueltaka udalekuak suntsitzeko asmoarekin baina lau lagun izan dituzte guzti hori defendatzeko: Orlegi, Masustra, Eguzkilo eta Zurrumbilo. Horiek ere udalekuetan izango ditugu bisitari eta beraiei eta Udan Olgetan udalekuetan parte hartuko duzuen 146 umeei esker Trumoi Ostadar bihurtuko dugu.



Aukera paregabea izango dugu ekainaren 24tik uztailaren 24ra bitartean milaka ekintza egin eta udaz gozatzeko. Irrikitana nago eguna heltzeko eta beti bezala abesti eder batekin udalekuei hasiera emateko: "...txikitana olgetan, handitan benetan, orain eta gero euskaraz berbetan..."!!

Badakit ere, beste ume eta gazte asko Albeiz, Mendigorria eta Lapurdiko kostaldetik ere ibiliko direla, eta beraiei ere onena opa diet:

Trumoi Ostadar bihurtu eta uda euskeraz gozatu!!
Mosu handi bat eta gero arte!!

EGUERDITAN MUSTURRAK SARTUTA



Badira urte batzuk Kurutziaga ikastolako eguerdi tarteetan bertako ikasleekin eskulanean aritzen naizela. Aurtengo ikasturtea ere konturatu gabe pasatu da eskulan eta marrazki artean, pintzel, arkatz, guraize eta tenperak euskararekin dantzan jarrita.

Eskulanez gain, sukaldaritzari ere tarte eman diogu eta hor neure harridura; ez nekien nik tailerrak horrenbesteko arrakasta izango zuenik. Ostegunetan ikastolara heltzerakoan denak zain izaten ditugu atean tupperra eskuan eta saltoka.

Su, labe eta hozkailurik gabe, baina ederto baten moldatu izan gara gailetak, pizza oreak, trufak, pastelak... egiten. Han bidaltzen ditugu guztiak, poz-pozik tupperra eta muturra txokolatez beteta.

Ez dakit batzuek muturra garbitzeko denborarik izango duten, izan ere, datorren ikasturtea prestatzen hasi naiz dagoeneko amantala jantzita errezetak bilatzen. Batek jakin ze koloretako muturrak ikusiko ditugun datorren irailean!

GUREAN EUSKARAZ PROIEKTUA



2012-2013 ikasturtea

Bukatu da aurtengo Durango, Berriz eta Iurretako ume etorkinekin egiten dugun Gurean Euskaraz Proiektuko ikasturtea. Maitasunez esanda, 6 hezitzaile eta 130 ume eta gazteek osatzen dugun "mila koloretako familia" da Gurean.

Euskaraz, artistenak egiten, jolasten, kantuan, dantzatzen eta modu askotako hainbat ekin-tzez betetako ikasturtea izan da gurea.

Batzuentzat euskara errefortzuak jasotzeko txokoa izan da soilik, beste batzuentzat aldiz, etxeko eta inguruko arazoak momentu batez ahaztu eta lagun artean ondo pasatu eta bi-zipen eta sekretutxoak elkarbanatzeko momentutxoak.

Gutako askok datorren ikasturtean berriz elkar ikusiko dugu, beste batzuk aldiz, urru-nan zuen jatorriko herrialdean egongo zarete bueltan... Zuei guztioi, gero arte familia eta eskerrik asko!

Laguntzaileak:

